

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA  
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN  
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN  
PRÍNCIPE DE VIANA**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA  
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA  
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**SESIONES DELIBERATIVAS  
NORMATIVA: LEYES SECTORIALES**

**ERABAKITZE BILERAK  
ARAUDIA: LEGE SEKTORIALAK**

*PAMPLONA, 3 de Noviembre de 2016*

*IRUÑAN, 2016ko Azaroaren 3an*

## **AURKIBIDEA**

<b>1.-SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA .....</b>	<b>2</b>
<b>3.-PARTE-HARTZAILEAK .....</b>	<b>2</b>
<b>4.-BILERAREN GARAPENA .....</b>	<b>4</b>
<b>5.-LABURBILKETA ETA AGURRA .....</b>	<b>11</b>

## 1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik. Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako 7 parte-hartze bilera antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Prozesuaren azkeneko fasea Erabakitzailea da, zinetarako 4 bilera antolatu baitira gai zehatzen inguruan era sakonagoan eztabaidatu eta erabaki ahal izateko. Txosten hau Azaroaren 3an INAP eraikineko Pio Baroja Aretoan burutu izan zen **“Araudia (Lege Sektorialak, Museo eta bilduma museografikoak, Artxiboak, Liburutegiak eta Ondarea)”** inguruko Erabakitze Bileran jasotakoa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere sormen arloko eta Nafarroako kultura gestoreen ordezkarietara zuzendu izan zelarik.

## 2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA

“Araudia (Lege Sektorialak, Museo eta bilduma museografikoak, Artxiboak, Liburutegiak eta Ondarea)” inguruko Erabakitze Bileran Pio Baroja Aretoan burutu izan zen Azaroaren 3an 9:30 eta 12:30 orduen bitartean.

Bileran 12 pertsonak hartu izan zuten parte, hauetako guztiek landu beharreko 4 lege sektorialekin zerikusia zutelarik.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze prozesua erabakitze fasean aurkeztea.
2. Bi gaien inguruen erabakitzea:
  - 10/2009 FORU LEGEA, uztailaren 2koa, Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzkoa; berrikuspena.
  - 12/2007 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Artxiboei eta dokumentuei buruzkoa; berrikuspena.
  - 32/2002 FORU LEGEA, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena; berrikuspena.
  - 14/2005 FORU LEGEA, azaroaren 22koa, Nafarroako Kultura Ondareari buruzkoa; berrikuspena.

Erabakitze bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren teknikariaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. **Parte hartze-erabakitze** lanaren talde dinamika.
4. Talde lanaren **bateratzea**.
5. Amaiera eta agurra.

Bilera burutu aurretik, deituak izan ziren pertsonak bileraren metodologia azaltzen zen eta aurretik proposamenak bidaltzeko aukera eskaintzen zuen maila bat jaso izan zuten. Ez zen aurretiko proposamenik jaso; beraz, galdetegian bidalitako gaiak landu izan ziren aurreikusita zegoen bezala.

### 3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen Deiturak	Erakundea
ELUR ULIBARRENA HERCE	MUSEO ETNOGRÁFICO DE ARTETA
MIREN JOSEBA LARA ASTIZ	ARCHIVO Y BIBLIOTECA CAPUCHINOS DE PAMPLONA
AINHOA AGUIRRE LASA	ZUGARRAMURDIKO GARRAPENA SL
GONZALO GARIA ESCOBAR	MUSEO CATEDRAL PAMPLONA – OCCIDENS
ANA ZABALZA SEGUIN	UNIVERSIDAD DE NAVARRA
DAVID ASCARBE	MUSEO DIOCESANO DE PAMPLONA
BEATRIZ ITOIZ CHARTÓN	ARCHIVO CASA MISERICORDIA
JUAN PABLO HUÉRCANOS	FUNDACIÓN MUSEO OTEIZA
MERCEDES ORBE SIVATTE	ARZOBISPADO PAMPLONA-TUDELA
MARÍA ROSARIO MATEO PEREZ	OLCAIRUM ESTUDIOS ARQUEOLÓGICOS
CARMEN ECHEVERRÍA ARAMBILLET	UPNA
EDUARDO LEONÉ EGUARAS	ASOCIACIÓN ARCHIVEROS DE NAVARRA
ALFREDO ASIÁIN ANSORENA	ARCHIVO DE PATRIMONIO INMATERIAL DE NAVARRA – NAFARRAKO ONDARE MATERIAGABEAREN ARTXIBOA
FERNANDO DE LA PUENTE	MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA
OSCAR DE MIGUEL	MUSEO JULIÁN GAYARRE
BORJA GONZALEZ	MUSEO OTEIZA
IÑAKI MONTOYA	ARCHIVO UNIVERSIDAD
CARLOS ARMENDARIZ	PLATAFORMA DEFENSA DEL PATRIMONIO
ASUNTA RECARTE	REAL COLEGIATA RONCESVALLES
ANA HUESO	AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

KUDEAKETA	
Izen Deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ANA SARRADO ARAGÜÁS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
JAGOBA ESAIN AZCONA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
MARÍA CAMINO BARCENILLA TIRAPU	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

## **4.-BILERAREN GARAPENA**

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko María Camino Barcenilla Tirapuk bertaratutakoak agurtzen ditu eta Javier Espinosa aurkezten du, Parte-hartze Prozesuaren koordinatzailea, EIN Hiri Arkitektura eta Ingenialaritzakoa, prozesuaren laguntza teknikoa.

Ondoren, EIN Hiri Arkitektura eta Ingenialaritzako Javier Espinosa Ochoak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren azalpen orokorra burutzen du eta baita parte-hartzearen dinamikarena ere.

Ondoren bertaratutakoak lau taldetan banatzen dira, hauetako bat Museoen inguruan lan egiteko, beste bat Artxiboen inguruan, beste bat Ondarearen inguruan eta azkena Liburutegien inguruan.

Azkenik Lege jakin baten inguruan lan egin izan zuten talde ezberdinek egindakoaren artekoa komunean jarri izan zen, gainontzeko taldeek bileran landu izan zen ezagutu zezaten.

Ondoren agertzen dira parte-hartze erabakitze bileran egindako ekarpen nagusienak.

## 1.- MUSEOEN LEGEAREN ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKOEN BERRIKUSPENA

- Lege horren 9. Artikulua dela eta, "Sustapen eta lankidetzaren printzipioak" izenburua duena, bertan agertzen diren intentzioak oso onak direla aipatzen da baina egun betetzen ez direla eta legea berrikusi aurretik hau betetzea beharrezkoa litzatekeela, edota behinik hautsia ez izatea.
- 11. Artikuluari dagokionez, bertan artikulua honek duen maximoen izaera agertzen da, minimoena izatea komenigarriagoa izango zenean, beste aukerak ahalbidetuz. Honen adierazle dugu Legen honek soilik 11 Museo identifikatzea.
- 22 eta 23. Artikuluei dagokienez, Teknologia Berriak aintzat eduki beharko genituzke inbentario guztiak berritzeko eta askoz ere eraginkorragoak izan zitezten.
- 23. Artikuluan Museoak nola helarazi behar diren zehaztu beharko litzateke, zein tresna bitartez, etab.
- 13. Artikulua dela eta (Nafarroako Museo Sistemaren barneratzearen efektuak), Museo Sistemarentzat komuneko hainbat aspektu aintzat hartu beharko ziren (jada aipatuak izan direnen aparte):
  - ✓ Hornitzaile komuneko politika sustatzea, arlo ezberdin guztietan eraginkortasun handiagoa bilatuz (prezioa, kalitatea, homologazioa, etab.).
  - ✓ Behar bezalako aurrekontu batean oinarritutako funtzionamendua izan beharko zuen Museo Sistemak. Honek komuneko plangintza estrategikoa ahalmenu baimenak (giza baliabideak, hedapena – komuneko web orrialdea -, kalitate politika, etab.).
- Legeak babesten ez dituen eta kontuan hartu beharrekoak dira Nafarroan egun existitzen diren erakusketa zentro eta museo ezberdinak era edozeren alboan daudenak (kultura politikak, dirulaguntzen eskuragarritasuna, etab.). Ezin dituzte "ofizialak" izateko minimoak bete eta inork kontrolatzen ez dituen dinamika ezberdin batean murgiltzen dira.
- Ofizialki izendatuak ez dauden Museo eta Erakusketa Zentro horiek lagundu eta gidatzeko araudia legala izatea izan beharko litzateke – araudia, etab. -. Honek kalitatezko eskaintza, amankomuneko ereduak, etab. izatea ahalbidetuko zuen.
- Hau erabat beharrezkoa da sistematik at Museo edota Erakusketa Zentro asko baitaudelako, arrazoi ezberdinak direla eta betebeharrak gaizki burutzen ari direnak. Honek ondorio negatiboak ditu bai ondarearekiko bai Nafarroako gizartearekiko.
- Museo eta Erakusketa Zentroa hauek burutzen duten lana goraiatzea beharrezkoa da oso, nahiz eta sistemaren barne ez egon; izan ere, oso garrantzitsuak dira kulturaz aparte, osagai turistikoko ekonomiko gisa ere.
- Oro har Legea zehatzagoa izan behar zela uste da Museo eta behin betiko bildumen arteko ezberdintasuna ezartzerakoan. Batean eta bestearen barne egoteko baldintzak zehaztu beharko ziren.
- Museoen jabetza publiko edo pribatua dela eta bereizte zehatza egon beharko zen, bien arteko ezberdintasunak (arlotan) zehaztu beharko zirelarik.
- Nahiko paradoxikoa den arlo bat existitzen da. Sistemaren barne dauden Museoei eskatzen zaie, obra jakin bat maileguan eskaintzerakoan, komunikatu dezatela (Museoen Legearen halaberrez) eta horretarako beharrezko autoritatea izan dezatela (Ondare Legearen halaberrez). Honen gaineko berrikuspena beharrezkoa da, egun arrazoi ezberdinak direla eta betetzen ez baita (ez da komunikatzen, kontrolatzeko giza baliabideen gabeziak, etab.)

## 2.- NAFARROAKO LIBURUTEGI SISTEMA ARUTZEN DUEN LEGEAREN BERRIKUSPENA

- II. Kapitula. Nafarroako Liburutegi Sistema.  
5. Artikuluan eskola liburutegien inguruan mintzo da.  
Eskola liburutegiak alboratuta daudela aipatzen da, hauen erabilera falta azpimarratzen da euren erabilera ikasleen artean bultzatzen ez baita.
- II. Kapitula. Nafarroako Liburutegi Sistema.  
7. Artikulua. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak.  
Liburutegi pribatuak barneratzeko eskakizuna, Nafarroako Gobernuak hauek kontuan hartu ditzala.  
Termino PRIBATUA azpimarratzen da.  
Hiritarrentzako eskaintzen diren baliabide asko dituzte eta hauek liburutegiekin batera daudela ezagutu beharra dute.  
Nafarroako Gobernuak zabaldu behar ditu. Nafarroako testuinguruan existitzen ez diren sentimendua dute.  
Aragoiko Erkidegoko 2005. urteko Legea eredutzat aurkezten da. Honen baitan liburutegien tipologia zehazten da, Erkidegoko guztiak euren izaeraren arabera jasotzen direlarik.
- Legeak jaso beharko zituen hiritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak liburutegien sistemari eta honen erabilerrari dagokionez.  
Hau Araudian jasota dago (garatu ez den araudia), baina Legeak berak jasotzeak aurrerapauso garrantzitsua izango zela onartzen da.  
Eredutzat Aragoiko 2005eko legea aurkezten da.
- III. Kapitula. Nafarroako liburutegi publikoen sistema.  
12. Artikulua. Liburutegien zerbitzuen definizioa.  
Internet eta online dauden informazioenganako eskuragarritasuna, hauek liburutegietako oinarritzko zerbitzuen baitan baitaude.  
Zerbitzu hau minimoen zerbitzuen barne egotea eskatzen da.  
Egun zerbitzu hau ez duen liburutegirik ez da ulertzen.

### 3.- NAFARROAKO KULTURA ONDAREAREN LEGEAREN BERRIKUSPENA

- Ondare Legea positibotzat ulertzen da, batez ere Ondarearen babesari begira, baina arlo praktikoan hiritargoaren ondarea eta ondare partikularren arteko ezberdintasuna bereiztea beharrezkoa dela azpimarratzen da. Honen harira, partikularren menpe dauden ondare jakin batzuen itzulera edota izaera komuna izan dezatela defendatzen da.
- Ondare Immaterialaren Egile Eskubideak jaso beharko zituen Legeak, hauen gaineko bidezkoa ez den erabilera burutu ez dadin.
- Legeak amankomuneko Ondarea bermatu behar duela azpimarratzen da, horren jabetza edozein motatakoa izanik.
- Ondareak izan behar duen **barneratze dimentsioa** defendatzen da, Legeak babesten ez dituen mota guztiak bildu behar direnak; hala nola Industria Ondarea, paisai Ondarea edota Ondare iluna (bunkerrak, fosak, esklabutza aztarnak, etab.). Hau lortzearen berebizikoa da Legearen berrikuspena Ondare barneratze eta globalaren babesa oinarritzat hartuta izatea.
- Legean jasotakoa gehiago garatzen duen Arkeologia araudiaren beharra defendatzen da.
- Balore patrimonial eta etnologikoa duten ondare asko galtzen ari dira.
- Informazioa eta inbentarioak asko zatitu izan direla azpimarratzen da eta toki batzuetan oso geldoa dagoela, ondare mota ezberdinen arteko elkar erlazioa oztopatzen edota ezintzen duena. Estructura hau aldatu beharko litzateke eta baita administrazio sistemaren kudeaketan islatzea kasu honi dagokionez.
- Honen harira interesgarria litzateke inbentarioen baitan bildutako ondasunek hauen dimentsio fisikoa jasotzea eta baita dimentsio immateriala jasotzea ere, espazioaz gain erabilera eta testuingurua babestuz.
- Ondarearen katalogo bateratua izatearen garrantzia azpimarratzen da.
- Jabeek euren jabegoetan izan ditzaketen ondareek dakartzaten betebeharrak direla eta, legeak behartuta mantentze edota eraberritzeak suposatzen dituen karga eta kosteak obra handi eta enpresari handientzako egokiak direla uste da. Jabe txikien kasuan aitzitik, koste ekonomikoak oso handiak izan daitezke eta gehiegizkoak dira hauentzat, askotan karga negatibotzat ulertuz, ondarea ezkutatzera edota honen inguruan iruzurtzera eraman dezakeena.
- Honekin lotuta, lur zati bat erosi aurretik honen gaineko ondare kargarik dagoen edo ez ezagutzeko sistema baten beharra azpimarratzen da. Hau burutu ahal izateko, Legearen 59. Artikuluan; "Kautelazko Neurrien" baitan, erosi beharreko lur zatiak honek dituen karga eta zortasunak jasotzea posible izango litzateke.
- Informazio hau herrietako egitasmoetan jasota egon beharko litzatekeela aipatzen da eta baita lurraldearen antolamendurako tresnen barne ere, nahiz eta hauetako askok ez dituzten informazio hau eguneratua edo ez dute informazio hori ere. Informazio honek ondare guztiari erreferentzia egin beharko liokeela azpimarratzen da, ez soilik kultura era materialari, baizik eta guztiei, materiala edota immateriala izanda ere.
- Azkenik, karga eta kostuen ideari lotuta, amankomuneko ondareak sortutako koste hauek erkidegoak ordaindu beharko zituela eta ez jabeak aipatzen da.

### 3.- NAFARROAKO KULTURA ONDAREAREN LEGEAREN BERRIKUSPENA

- Intereseko ondareak izendatzeko sistemaren berrikuspena beharrezkoa litzatekeela azpimarratzen da, zenbait kasutan blokean emandako izendapenak suertatu duenak, nahiz eta hauen balorea bereziki garrantzitsua ez izan. Benetakoa eta berezia duten interesa izendatu beharko ziren.
- Legeak **ondarearen hedatze, zabaltze eta didaktika** euren dimentsio guztietan sustatu beharko zituela azpimarratzen da.
- Gizartearen baitan babestutako elementuen ondaretasun sentimendua bultzatu behar litzateke, horrela hauen gaineko ulermena zabalduko zen, euren ezaugarri teknikoetatik aparte baloratuak izateko. Hau lortzeko garrantzizkoa da oso biztanleriak ondasunek duten balorea jabetzea.
- Askotan katalogatzerako eta izendatzerako mementoan nolabaiteko elitismo teknikoa antzeman izan da, gerora mantentzea oso zaila dena honek suposatzen dituen gastuak direla eta. Zentzu honetan, biztanleriak ondarea ezagutu eta baloratu zezan esfortzu handiagoa egin beharko litzateke, propiotzat uler zezan eta horrela mantendu eta zainduko zuen agente bilakatuz.
- Ondarearen ikerketa eta mantentze arloko profesionalak ez daude behar bezala ekonomikoki baloratuta eta profesional hauek burutzen duten hedatze ekintzak ordaintzeko sistema zehatz bat garatu beharko zen.
- **Eraispen eta errutina espedientei** dagokienez (Legearen 30 eta 31. Artikuluak) konponbide aukera gehiago eskuragarri izatearen beharra azpimarratzen da gastua ondarearen baloreari eta baira egoerari ere egokitzeko, eraikinen estaltzetik haratago, honek kostu handia dakarrelako eta beti ez delako aukerarik egokiena.
- **Ikerketa eta Formakuntzari** dagokienez, Legearen 94. Artikuluan jasoak, orokortasunak baino ez dira lantzek neurri zehatzik agertzen ez delarik eta gainera garapen eskasa izan dutenak; izan ere, ez dute ondarea curriculum eskolarrean barneratzea helburu zuten ekintzarik garatu, batez ere Lehen Hezkuntzari dagokionez.
- Eliza Erakundeak, kostak jasan ezinarenegatik **herri jakin batzuetan elizak partikularrei saldu izanak** aipatzen du parte-hartzaileetako bat. Honen harira, partikularrei saldu baino lehen herriak ondare hau erosteko lehentasuna edota eskubidea izatea jaso egin beharko zuen Legeak.
- Gai honekin lotuta, beste proposamen bat egiten da, bermatu beharreko ondarea materiala ez balitz, baizik eta immateriala ere, kasu hauetan ondare horren transmisioa soilik herrietako biztanleei egitea posible izango zen, hauek baitira mantentzeaz arduratzen direnak.

#### 4.- ARTXIBO ETA DOKUMENTUEN LEGEAREN BERRIKUSPENA

- Legearen berrikuspen orokorra, izendapenarengandik hasita (adibide gisa Kataluniako eredu aipatzen da: Artxibo eta Dokumentuen Kudeaketa Legea)
- Ziklo dokumentalaren berrikuspena. Administrazio elektronikoaren bultzada probestuz eta berrikuspenaren beharraz.
- 4. Titulua, 2. Kapituluak, 28-30. Artikuluak: Egun herri jakin batek artxibategi zerbitzu izatea erabakitzeke 15.000 kideko biztanleria kopurua ezartzen da, berrikusi beharko zen zifra.
- Ondarea mantentzeko arriskua antzematen den mementorako beharrezkoak diren neurriak hartzeko segurtasuna eskaintzen duen sistemaren beharra.
- Herri testuinguruaren baitan, bertako biztanleei artxiboen tokialdatzea lapurretarik edota sakuraketarik ez dela azaltzeko sistemak beharrezkoak dira.
- 2. Titulua 5. Artikulua 6. Puntua: Artxibo pribatuek hiritargoaren eskuetan duten garrantzia dela eta. Beharrezkoa da hiritargoari jakinaraztea artxibo horiek erakunde publikoen kudeaketaren menpe utzita behar bezalako tratamendua jasoko dutela.
- 3. Titulua, 1. eta 2. Kapituluak: Inspekzio gaitasunak direla eta. Arlo hau ez dago egon behar litzatekeen bezain zehaztua, hitzarmenaren baitan egonda honek dakartzan ondorioen inguruko ezezagutza da nagusi.
- 3. Titulua, 1. Kapituluak, 3. Atala: Hitzarmenetan artxibo pribatuei erreferentzia egite beharrezkoa da. 1. Titulua, 1. Kapituluak, 4. Atalaren baitan jasota egon beharko zen.
- 4. Titulua, 2. Kapituluak, 30. Artikulua: Artxibategi zerbitzua izateko biztanle minimoaren kopuruaren berrikuspena beharrezkoa da.
- 3. Titulua, 2. Kapituluak, 8. Artikulua, 2. Puntua: Nafarroako Artxibo Orokorrek bere baitan biltzen dituen artxiboen gaineko zalantza handia dago.
- Erakundeek gordeta duten dokumentazioa behin 40 urte igarota artxibo ondarearen baitan egon beharko litzatekeen edo ez aipatzen da. Honen inguruan eztabaidatu beharko zen.
- Enpresen dokumentazioa da albo batean gelditu izan dena, euren dokumentazioa 40-100 urte bitarte dokumentatua izan ezin dena. Honen harira enpresak lagundu beharko ziren euren dokumentuak tratatuak izan zitezten.
- 2. Artikulua (definizioak direla eta): Segurtasun eta elkarlanerako eskema nazionala zabaldu eta ahokatzeari.
- Ebaluaketa terminoa; mantentzen da edo zuzendu beharra dago?
- Oro har terminologiaren berrikuspena.
- 2. Titulua, 3. eta 4. Artikuluak: Jabego publikoa duen dokumentazioa, etab. ahokatzeari, enpresa publikoen dokumentazioekin zerikusia dutela ere.
- 5. Artikulua: Jabegotasun pribatua dela eta, jarraibideak ezarri beharko litzateke hiritargoak babespen horretara jo izan dadin.
- 2. Artikulua, 8. Kapituluak: Mantentze egutegia dela eta, hau martxan jartzea beharrezkoa da eta ikusgarritasun eta garrantzia handiagoa izatea ere.
- 10. Artikulua: Dokumentuengana eskuragarritasunaren araudiak ezartzen duena azpimarratu beharra dago, eta baita gardentasun legearekin zerikusiarekin erlazionatzea ere.
- 3. Kapituluak, 11. Artikulua, 1. b. Puntua: Sistema osatzen duten kideen arteko elkarlan karguak eratzea.

#### **4.- ARTXIBO ETA DOKUMENTUEN LEGEAREN BERRIKUSPENA**

- 4. Titulua, 1.. Kapituluua. Artxiboen Estruktura: Hauek bultzatzearen beharra. Legeak jasotzen ditu oro har, baina ez dute funtzionatzen.
- 2. Kapituluua, 29-30. Artikuluak: Artxibategi zerbitzua osatzeko beharrezkoak diren biztanle kopurua gutxitzea.
- Baliabideak erabiltzeko koordinazio karguak eratzea.
- 15. Titulua: Zigortze araudia eraginkorragoa izatea ekintza handiagoen bitartez.
- Legea praktikan jartzerako mementoan gabeziak antzematen dira, hala nola artxibategi teknikaririk ez duten 15.000 biztanleko herriak.
- Artxiboen zentsua Legeak jasotzen du baina hau ez da betetzen. Burutu izan zen azken zentsua 80-90.eko hamarkadetan izan zen eta honen berritzea guztiz beharrezkoa da.
- Nafarroako Gobernuak dituen betebeharrak azpimarratzea beharrezkoa da; izan ere, Artxiboak kudeatzeko, ez fisiko, ez elektronikoki, gaitasunik ez duten administrazio asko baitaude.
- Definizio falta larria dago zentsuari, artxibo mapari, erregistroari, etab.-arri dagokienez.
- Ebaluaketa Komisia dela eta, artxibo batzuetatik bestera dauden epeak berrikusi beharko litzateke, kudeaketa elektronikoarekin egin beharko zen bezala. Gainera, honen funtzionamenduaren gaineko zalantzak daude. Prozesuren baitan arintasun handiagoa beharrezkoa da.
- Ebaluaketa Komisia dela eta, honen berrikuspen eta eguneratzea beharrezkoa da Artxiboen Legearen baino lehenago ezarri izan baitzen. Berrikuspena batez ere araudia berriekiko burutu behar da (dokumentuen babesnerako Legea, etab.). Legez erakunde publikoentzat zuzendua egon beharko zen eta ez soilik Nafarroako Gobernuari zuzendua; izan ere, honen administrazio bakoitzak berea propioa izatea suertarazi baitu. Azkenik, araudia berrienak barneratu beharko ziren.
- Dokumentuaren kudeaketa dela eta, Artxibo Bakarraren kontzeptuaren berrikuspena beharrezkoa da oso.
- Giza baliabideak direla eta, artxiboen kudeaketan lan egiten duten enpresen behar teknikoak arautzea beharrezkoa da oso. Langileentzako birziklapen ikastaroak ezarri beharko ziren. Honekin batera formakuntza publikoa gehiago bultzatu beharko zen, unibertsitateetako tituluek sortzen duten akademizismotik aldentuz. Enpresak aparte, Gobernuak pisu handiagoa izan beharko zuen kontratatzerako mementoak. Deialdi, oposaketa, etab.-arrentzako baremoa ikasketa eta lan esperientziaz osatuta egon beharko zen. Honi osagarriak izango ziren ikastaro espezifikoak gehitu beharko zitzaizkion.

## **5.-LABURBILKETA ETA AGURRA**

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsoneri eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta [participacioncultura@navarra.es](mailto:participacioncultura@navarra.es) mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.